Bilbao
UDALA
AYUNTAMIENTO

# ANEXO/ ERANSKINA
# 2018KO ARATUSTEEN KARTELEN LEHIAKETAREN BALDINTZAK
# BASES CONCURSO CARTEL DE CARNAVAL 2018

**BALDINTZAK**

1. Egile bakoitzak lan bi aurkeztu ditzake gehienez ere.
2. Tamaina: kartela 70 cm x 50 cm neurrikoa izango da (ez-etzana). Luma-kartoi gainean eta kristalik gabe aurkeztu behar da derrigorrean, CD batean hiru digitalizazio, bata 200 kb-ko JPGa, bestea Mb1-eko JPGa eta azken inpresioaren tamainako erresoluzio altuko PDF bat.
3. Kolorea eta teknika: aukerakoa.
4. Obrak originalak izango dira.
5. Karteleko testua hau izango da:

***BILBAO 2018***
***ARATUSTEAK/CARNAVALES***
***Otsailak 8 – 13  Febrero***

6. Aurkezteko epea: azken eguna 2018eko urtarrilaren 10ean, 14:00etara arte.
7. Aurkezteko lekua: Berdintasun, Lankidetza, Bizikidetza eta Jaietako Saila (Venezuela enparantza 2. 5º. 48001 Bilbo) 9:00etatik 14:00etara.
8. Informazio-telefonoa: 94 420 31 47 eta herritarrentzako informazio telefonoa: 010.
9. Identifikazioa: lanak lemarekin eta egilearen izenperik gabe aurkeztu beharko dira. Lema bera daraman gutunazal itxi batean egilea nor den jakiteko datuak adieraziko dira, curriculum laburra, telefono zenbakia.
10. Saria: 2.000 eurokoa izango da.
11. Saririk eman barik ere utzi daiteke, aurkeztutako kartelek behar adinako kalitaterik ez badaukate. Kasu horretan, Epaimahaiak hiriko artista edo estudio entzutetsuren bati eskatu ahal izango dio kartela egiteko.

12. Kartelak teknika aldetik tonalitate-aldaketaren bat beharko balu hobeto inprimatzeko, edo Aratuste daten akatsak edota ortografiari buruzkoak baleude, Epaimahaiak aldaketok agindu ahal izango ditu, egileari aldez aurretik galdetuta eta berarekin lankidetzan.
13. Epaimahaia: Berdintasun, Lankidetza, Bizikidetza eta Jaietako Sailak izendatuko du. Jai Batzordeko kideak eta Kultur eta diseinuaren munduko jendea.
14. Epaimahaiak sei kartel aukeratuko ditu eta konfirmatu barik dagoen lekuan eta udalaren web orrian jarriko ditu ikusgai; ondoren, herri-bozketa egiteko epea zabalduko da. Botoak honela eman ahal izango dira:
    - Zuzenean (Tokia konfirmatu barik dago).
    - Udalaren web orriaren bidez.
    - Lehiaketaren laguntzaile diren komunikabideen bidez.

    Herri-bozketa honen bidez puntuazioaren %75a erabakiko da (aipatutako sistema bakoitzari %25ra dagokio). Gainerako %25a Epaimahaiaren bozketaren bidez erabakiko da.

    Herri-bozketako puntuak eta Epaimahaiarenak batuta puntuaziorik handiena lortzen duen kartela izango da irabazlea.
15. Aurkezten diren lan guztiek behar bezala gestionatuta eduki behar dituzte kartelean ageri diren argazki, marrazki edo baliabide grafikoen erabilera-eskubideak, horiek irudien bankuetatik hartu direnean edo egilearenak ez direnean.
16. Epaimahaiaren ahalmenak: Epaimahaiak lehiaketatik kanpo utz ditzake lanak:
    - Autorea nor den zalantzan dagoenean.
    - Pertsonen duintasunaren aurka doazenean.
    - Beste obra batzuen plagiotzat hartzen dituenak eta plagiotzat jo ez arren beste obra batzuetan inspiratutakoak izanik eta haiekin dituzten berdintasunez Epaimahaia jabeturik, originaltasunik ez dutela erabakitzen duenean.

Herri-bozketa hasi ondoren uzten bada lanen bat lehiaketatik kanpo, bozketak jarraitu egingo du gainerako finalistekin.

17. Epaimahaiaren eskumenak bere horretan utzita, bakarrik hartuko ditu kontuan herri-bozketa egiteko epearen barruan aurkezten diren kexak edo erreklamazioak.

18. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da. Hala ere, Epaimahaiak erabakia berriro aztertu dezake eta baliorik gabe utzi aurreko puntuko gorabeheraren bat gertatzen denean.
19. Bilboko Udalak kartel irabazlearen jabetza ez ezik, jendaurreko komunikaziorako, kopiatzeko eta banatzeko eskubideak ere eskuratuko ditu; eskubide horiek Udalarenak baino ez dira izango.
20. Lanak ikusgai jarri ahal izango dira Abandoko udaltegian, 2018ko otsailaren 1etik 14ra. Espazio kontua dela-eta, epaimahaiak erabakiko du zeintzuk erakutsiko diren, kartelen kalitate artistikoa kontutan hartuta. Sei kartel finalistak aukeratu eta 2018ko azaroaren 1erarte ikusgai jartzeko eta eurei zabalkundea emateko eskubidea izango du Udalak. Epe horretan eskubideak dohainik eta berari bakarrik laga zaizkiola ulertuko da obren erakusketa amaitu arte.
21. Berdintasun, Lankidetza, Bizikidetza eta Jaietako Sailean, Venezuela enparantza 2an 5. pisuan, jaso ahal izango dira saririk irabazi ez duten lanak, 2018ko otsailaren 20tik martxoaren 10era bitartean, 9:00etatik 14:00etara. Hortik aurrera, Udalak erabakiko du bere kabuz zer egin jaso ez direnekin. Udalak ez du bere gain hartuko aurkeztutako materialek garraiatzean, manipulatzean, ikusgai jartzean, biltegian gordetzean edota antzekoetan izan ditzaketen kalteen erantzukizunik.
22. Lehiaketan parte hartzeak baldintza guzti-guztiak onartu direla esan nahi du.
23. Oinarrietan araututa ez dagoenerako, ordezko izaeraz, Bilboko Udalaren eta zuzenbide publikoko bere erakundeen eta entitateen deialdiaren bidez diru-laguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza Orokorra aplikatuko da. Bilboko Udalak 2016ko ekainaren 30ean onartu zuen ordenantza hori eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, 2016ko uztailaren 20ko 138 zenbakian argitaratu zen.

Bilbao
UDALA
AYUNTAMIENTO

**BASES**

1. Podrán presentarse hasta un máximo de dos obras por autor/a.
2. Tamaño: 70 cm x 50 cm (no apaisado). Deberá ir montado inexcusablemente sobre cartón pluma y sin cristal. Además el/la autor/a adjuntará un CD con tres digitalizaciones del cartel, un JPG de 200 kb, otro JPG de 1 Mb y un PDF en alta resolución a tamaño final de impresión.
3. Color y técnica: libre.
4. Las obras deberán ser originales.
5. El texto correspondiente al cartel será:

***BILBAO 2018***
***ARATUSTEAK/CARNAVALES***
***Otsailak 8 – 13 Febrero***

6. Plazo presentación: hasta el día 10 de enero de 2018, a las 14:00 h.
7. Lugar de entrega: Área de Igualdad, Convivencia, Cooperación y Fiestas (Pza. Venezuela nº 2, 5º - 48001 Bilbao), en horario de 9:00 a 14:00 h.
8. Teléfonos de información: 94 420 31 47 y teléfono de información ciudadana 010.
9. Identificación: los trabajos serán presentados bajo lema y sin firma del autor/a. En sobre cerrado y bajo el mismo lema deberán incluirse los datos para la identificación del autor/a, breve curriculum, incluido número de teléfono.
10. Premio: la cuantía del premio asciende a 2.000 €.
11. El concurso podrá ser declarado desierto en caso de que los carteles presentados no tuvieran la suficiente calidad técnica, en cuyo supuesto el Jurado podrá encargarlo a un/a artista o estudio con raigambre en la Villa.
12. Obra ganadora: si la ejecución técnica del cartel requiriese alguna modificación de las tonalidades para su mejor impresión, así como la corrección de las fechas de celebración de Aratusteak/Carnavales o errores ortográficos, el Jurado podrá imponer dicha variación, previa consulta y en colaboración con su autor/a.

13. Jurado: será el designado por el Área de Igualdad, Cooperación, Convivencia y Fiestas, y estará compuesto por representantes de la Comisión de Fiestas y representantes del mundo del diseño y de la cultura.
14. Selección del cartel ganador: el Jurado seleccionará 6 carteles que serán expuestos en algún lugar todavía sin confirmar y en la página web del Ayuntamiento. A continuación, se abrirá un periodo de votación popular a través de los siguientes medios:
    - Votación presencial (lugar sin determinar).
    - Votación a través de la página web municipal.
    - Votación a través de los medios de comunicación colaboradores.

    A través de esta votación popular se asignará el 75% de la puntuación (correspondiendo a cada uno de los medios señalados el 25%). El resto de la puntuación (25%) se otorgará mediante votación del Jurado. Será seleccionado cartel ganador aquél que obtenga mayor puntuación sumados los puntos otorgados por la votación popular y por el Jurado.
15. Todo trabajo presentado debe tener correctamente gestionados los derechos por la utilización de cualquier fotografía, ilustración o recurso gráfico que estén presentes en el cartel y que provengan de banco de imágenes o no hayan sido realizados por el autor del trabajo presentado.
16. Facultades del Jurado: el Jurado podrá descalificar, en cualquier momento en el proceso de selección, todos aquellos trabajos en los que concurra alguna de las siguientes circunstancias: • Los de autoría dudosa. • Los que atenten contra la dignidad de las personas. • Los que considere que constituyan plagio de otras obras y los que, sin poder considerarse como tal, supongan una imitación, estén inspirados en otras obras o coincidan con ellas de tal forma que, una vez conocidas por el Jurado tales circunstancias, le den motivo a decidir que les faltan méritos de originalidad. Si la descalificación se efectuara después de haberse iniciado la votación popular, esta continuará con el resto de carteles finalistas.
17. Sin perjuicio de las facultades que asisten al Jurado, este solo tomará en consideración las quejas o reclamaciones que se efectúen en el plazo de votación popular.

18. El fallo del Jurado será inapelable. No obstante, el Jurado podrá revisar y anular el fallo si considerara que concurre alguna de las circunstancias previstas en el párrafo anterior.
19. El cartel ganador pasará a ser propiedad del Ayuntamiento de Bilbao, considerándose además cedidos por el/la autor/a los derechos de explotación sobre dicho cartel en las modalidades de reproducción, distribución y comunicación públicas; todo ello con carácter exclusivo y a favor del Ayuntamiento.
20. Las obras presentadas podrán ser expuestas al público en el Centro Municipal de Abando, del 1 al 14 de febrero de 2018, reservándose el Jurado la facultad de designar, por razones de espacio, las que a su juicio merecieran ser expuestas por su calidad artística. El Ayuntamiento tendrá derecho a la exposición y difusión pública de las obras no premiadas desde la selección de los 6 carteles finalistas hasta el 1 de marzo de 2018, entendiéndose como una cesión de derechos de carácter gratuita y en exclusiva hasta que finalice la exposición de las obras.
21. Los originales presentados al concurso y no premiados podrán retirarse en el Área de Igualdad, Cooperación, Convivencia y Fiestas (Pza. del Venezuela nº2, 5º - 48001 Bilbao), donde fueron depositados, desde el día 20 de febrero al 10 de marzo de 2018, en horario de 9:00 a 14:00 h. Transcurrida esta fecha, el Ayuntamiento podrá disponer libremente de los no retirados. El Ayuntamiento no se hará responsable de los daños que puedan recibir los materiales entregados como consecuencia de su transporte, manipulación, exposición, almacenaje o similar.
22. El hecho de participar en el presente concurso implica la aceptación total de las Bases.
23. En lo no previsto en estas Bases, regirá con carácter supletorio la Ordenanza General reguladora de las bases para la concesión de subvenciones mediante convocatoria por el Ayuntamiento de Bilbao y sus organismos y entidades de derecho público, aprobada en fecha 30 de junio de 2016 por el Excmo. Ayuntamiento Pleno y publicada en el BOB núm. 138, de 20 de julio de 2016.